

ZEINUEN HIZKUNTZAKO INTERPRETE ZERBITZUA - ESKUAIRE- UDAL BARRUKO PROTOKOLOA ZERBITZUAK ESKATZEKO:

ZERBITZUAREN ERREFERENTEAK:

Udala eta Eskuaireren arteko harremana errazteari begira, entitate bakoitzak interlokutore bana jarriko du:

- Tolosako Udala: Ainara Irazusta Zubeldia
- Eskuaire: Bego González Garcia

NOIZ ESKATU ZERBITZUA?

- A) Ekitaldi publikoetan, zerbitzu hau modu estrukturalen ezarri behar dela erabaki bada: Txupinazoak Ihauterietan eta San Juanetan, Babarrunaren festa, Mendi-tour, Beldur-barik, Tolosatzen partehartze-prozesua. (Datak ezarrita daudenean, Eskuaireri jakinaraziko zaio, egun horiek erreserbatu ahal izateko).
- B) Departamenduko ekitaldi, ekintza edo tramiteren batean, ZHIa behar duen herritarrak parte hartu behar duenean (izan daiteke teknikari arduradunaren inizatibaz edota herritarrak hala eskatu duelako). (Ekintza aurrera eraman baino astebate bat lehenago bideratu eskaera Eskuaireira).
- C) Udalaren informazio guneak irisgarriak egin nahi denean; batez ere WEB guneako hainbat atal.
- D) Zeinu hizkuntzaren oinarritzko tailerren inguruan proposamenak daudenean

NOLA BIDERATU ESKAERAK

a- Herritarrak eskaera bideratuko du zerbitzua behar duen eguna baino 7 egun lehenago (Ikusi ereduak) elektronikoki edo UDATEN eskaera erregistratuta.

b- Herritarrak aipatzen duen tramitearen arduraduna den departamentuak aztertuko du eskaera eta zuzena eta egokia dela irizten badu, 5 eguneko aurrerapenarekin Eskuaireira bideratuko du eskaera jarraian aipatzen diren gutxieneko informazioak jasoaz; eta kopia helaraziko dio Gizarte Zerbitzuen departamentuari: eskuaire.kb@gmail.com gizartezerbitzuak@tolosa.eus

c- Eskuairek konfirmazioa bidaliko dio eskaera bideratu duen departamentu arduradunari, eta kopia helaraziko dio Gizarte Zerbitzuen departamentuari.

d- Eskaera bideratu duen departamentu arduradunak komunikatuko dio zerbitzuaren baieztapena herritarrari.

Prozedura bera izango da eskaera ofizioz tramitatzen dugunean, eta beraz, jarduera antolatzen duen departamentuak kudeatuko du eskaera.

Gizarte Zerbitzuen Departamentua arduratuko da zerbitzu honetarako aurreikusitako aurrekontuaren eta fakturen kudeaketaz.

ZERBITZUA ESKATZEKO JASO BEHARREKO INFORMAZIOA (EZINBESTEKOA DA ZERBITZUAREN KALITATEA BERMATZEKO)

Data:

Lekua:

Iraupena:

Ekintza mota:

Antolatzen duen departamendua:

Harremanetarako pertsona:

Telefonoa:

Emaila:

Interpretazioa ondo burutzeko lagungarria den informazioa helarazi: gai-ordena, eskaleta, metodologia, aurkezpen dokumentuak,

Behin jardueraren arduradunak Eskuaireri informazioa pasata, elkarrekin baloratuko dute interprete kopuruaren beharra.

ESKUAIREK ERANTZUNGO DU ESKAERA HONAKO INFORMAZIOAREKIN

Zerbitzua emango denaren baieztapena

Interpretearen edo interpreteen izenak eta telefonoak

Zerbitzua emateko dituzten behar teknikoak

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak egingo du zerbitzuaren jarraipena eta koordinazioa, bai Udaleko gainerako Departamentuekin eta baita Eskuaire elkartearekin ere.

Eskuairek hilabetearen buruan helaraziko du emandako zerbitzuen faktura, eta Gizarte Zerbitzuen Departamentua arduratuko da ontzat ematez.